

## Herrien erabaki eskubidea



**Iñaki  
Lasagabaster**  
Hari juridikoari tiraka

**Asier Blas**  
Sezesio prozesuak:  
Eskozia, Katalunia,  
Euskal Herria

## IÑAKI LASAGABASTER

# “Ibarretxe Plana ez zen aurrera atera abertzaleak ez zirelako ados”

Lortuko al du independentzia Eskoziak? Zer gertatuko da Kataluniarekin? Gure Esku LDago ekimenak abiaraziko du burujabetzaren aldeko mugimendu indartsurik Euskal Herrian? Bor-borrear da herrien eskubideen gaia eta batek daki eltzean zer gerta litekeen. Gai politikoa da funtsean: zein da herri baten borondatea? Nola neurtzen da? Eta nola bideratu borondate horren emaitzak? Iñaki Lasagabaster EHUko Administrazio Zuzenbideko katedradunarekin jorratu ditugu gaiaren hari juridikoak. “Ezin dira gauzak *de facto* egin”, diosku berak, horregatik zuzenbideak arazoak eta akordioak bideratzeko moduak topatu behar ditu.



Has gaitezen autodeterminazioa eta erabaki esku-bidearekin. Lehen autodeterminazioa zena zergatik da orain erabakitzeko eskubidea? Zein desberdintasun dago batetik bestera?

Autodeterminazioa printzipio politikoa da, oso orokorra, herri guztiei dagokiena. Alemaniako Konstituzioak dio, Alemaniaren batasuna eta askatasuna autodeterminazio librea eratu dela.

■ **Elkarrizketa eta koordinazioa: Xabier Letona**

---

**Azala:** Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

**LARRUN pentsamendu aldizkaria** ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.416. zenbakiarekin banatua, 2014ko maiatzaren 25ean)



**“Konstituzioak nazionalitateak onartzen ditu, baina gero ez du esaten nazionalitatea zer den”.**

Baina gainera, Estatuaren arteko itunetan eskubide gisa ere onartua dago eta, beraz, aztertu beharko dugu itun horrek interpretatzen duen arabera. Garai batean esaten zen hori herri kolonizatuentzat bakarrik zela, baina gero Afganistan, Eritrea eta beste hainbat lekutan ere indarrean jarri da nahiz eta hauek koloniak ez izan. Oraindik ez dugu interpretazio zehatzik jakiteko itun horren barruan Euskal Herria edo Kataluniari badagokien eskubide hori. Itun hori NBEk interpretatu behar du eta erakunde horrek ez du inoiz esan guretzat edo katalanentzat balio ez duenik.

### **Eta erabakitzeo eskubidea?**

Sakonean gauza bera da, teknikoki aldatzen da. Hau da, guk askatasuna nahi dugu eta horretarako araubide juridikoak ematen dizkigun tresnak erabiltzen ditugu: autodeterminazioa, erabaki

eskubidea, eskubide historikoak edo dena dela-koa. Quebecen 1998an Kanadako Auzitegi Gorenak emandako epaiaren ondoren hasi zen erabiltzen erabaki eskubidea kontzeptu juridiko moduan eta zera esan nahi du: demokrazia batean herri batek estatus zehatz bat aldarrikatzen badu, hori onartu egin behar dela. Erabaki eskubideak ez du zerikusirik estatuaren arteko itun batekin, autodeterminazioarekin gertatzen den bezala, demokraziaren ideia berarekin baizik. Hemen bizi garenok gure arteko bizikidetzara arautzeko gure arauak egin ezin baditugu, ezin esan dezakegu demokrazian bizi garenik. Heteronomia izango dugu, ez autonomia; funtsean, menpekotasun modu bat.

### **Orduan, Espainian edo Mendebaldeko beste estatu askotan ez da demokraziarik?**

Bai, oso kalitate gutxiko demokrazia dago.



IÑIGO AZKONA

**“Ez dago alderdi abertzaleen arteko proposamen se-  
riorik burujabetzari buruzko ideiak mahai-gainean  
jarri, eztabaidatu eta adostasunak lortzeko”.**

Autodeterminazio eskubideari begira, noiz dago garbi lurralde bati herri izaera eta, beraz, eskubide hori dagokiola?

Kurduena herri bat da? Argi eta garbi, eta hala onartzen dute guztiek, baina hor daude lau estatutan banatuta. Badute autodeterminazio eskubiderik? Bai, baina horretarako NBEk esan behar du onartzen duela herri gisa eta eskubide hori badagokiola. Israelekin gertatu zen moduan. Zuzenbidea ez da matematika, akaso zerbaiteko eskubidea baduzu, baina eskubide hori indarrean jartzeko bide bat jarraitu behar duzu. Indar harremanen arabera, aukera gutxiago edo gehiago izango duzu hori lortzeko. Kosovon ez da indarrean jarri autodeterminazio erreferenduma, baina estatu batzuek estatu gisa onartu egin dute.

Lurraldea haiek kontrolatu arren, kurduak ez ditu inork estatu gisa ezagutzen.

**Espainiara etorrita, nazio eta nazionalitate artean ba al da desberdintasun juridikorik?**

Espainiako Konstituzioan nazio hitza ez sartzeko erabili zuten nazionalitate hitza, bestela, Fragak esaten zuen moduan, autodeterminazio eskubidea sartzen zelako Konstituzioan. Konstituzioak nazionalitateak onartzen ditu, baina gero ez du esaten nazionalitatea zer den. Irakurketa ezkorra eginda, esango genuke Konstituzioak Espainiaren burujabetza onartzen duela bakarrik. Zabalago irakurriz esan dezakegu Konstituzioan nazionalitateak agertzen direla. Eta agertzen badira zertarako da? Azken finean, ez ote da onartzeko Espainian beste *demos* batzuk, beste herri batzuk daudela? Espainia demokratikoa balitz, hori interpretatzea posible litzateke, denborarekin interpretazioak aldatu egiten direlako. Baina, jakina, horretarako indar politikoen borondatea behar da.

**Esate baterako, erabakitze eskubidearen arabera, Arabak esan ahal izango luke ez duela EAEko parte izan nahi, honek independentea dela esango balu? Ibarretxe Planaren garaian PPTik eta PSOEtik sarri plazaratutako ideia izan zen.**

Estatu arteko zuzenbidearen arabera hori ez litzateke posible, egitura instituzional batek zerbait onartzen badu –kasu honetan Jaurlearitzak– hori bere lurralde osoari dagokiolako. Bestetik, Aiarako eskualdeak ez luke eskubide bera? Edo Bastidak, Guardiak, Aramaiok? Edo Gasteizko San Cristobal auzoak? Eta zergatik ez norberak? Ezin da eskubide bat interpretatu eskubidea bera ukatzeko. Horren arabera, autodeterminazioa pertsona bakoitzarena da, eta ez, autodeterminazioa herri bati dagokion eskubide kolektiboa da.

**Euskal Herrira etorrita, dena den, euskal herritarrek gaur egun ezin dugu herri gisa erabaki, zatiketa instituzionalak gutxienez bi esparrutan –EAE**

eta Nafarroa– erabakitzea eskatzen digu. Iparraldeak ez du instituziorik ere erabaki ahal izateko.

Hala da, bai, lekuan lekuko indar harremanen arabera jokatu behar da. Gure arteko harremanak indartzeko tresna juridiko ugari ditugu, baina horretarako bide bat hartu behar da eta orain biribilgunean ari gara bueltaka.

Ibarretxe Planaren garaian, zuk esaten zenuen ez zela Konstituzioa aldatu behar, honek ahalbidetzen zuelako hura onartzeko moduko interpretazio bat. Zertan oinarritzen zinen?

Ibarretxe Plana proiektu bat zen eta Eusko Jaur-laritzak eta Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gorteetara eraman zuten. Proiektu bat aldatu egin daiteke eta hura ere alda zitezkeen eta, behinbetikoa finkatu ondoren, orduan bai, esan dezakezu konstituzionala den ala ez. Logikoena zen Kongresuan onartzea, negoziatu eta aldaketak egin eta, zerbait esan behar izatekotan, Konstituzio Auzitegiak ondoren esatea. Ibarretxe Planaren kasuan eztabaida bera ukatu zen, proiektuari negoziatziora iristeko aukerarik eman gabe.

**Baina behin Gorteetan onartuta indarrean jarriko zen, ezta?**

Jakina, Katalunian bezala, baina Konstituzio Auzitegiak gero bota zituen atzera Kataluniako Estatutuaren hainbat arau. Norbaitek egin du azterketa konparaturik Kataluniakoa zergatik onartu zuten eta gurea ez? Ez da egin halakorik. Kontua da gu txikiagoak garela eta, gainera, orduan Ibarretxeren proposamenarekiko aber-tzaleen arteko zatiketa zegoela. Orain ere CCOO eta UGT Kataluniaren erabakitzeke eskubidearen aldekoak dira, hemen aurkakoak.

**Ikusten al duzu berritasunik Kataluniako erreferendumaz Konstituzio Auzitegiak eman duen epaian?**

Juridikoki epaia oso negatiboa da, nahiz eta beti zabaldu daitezkeen interpretaziorako zirriki-



**Erabaki eskubideak ez du zerikusirik estatuen arteko itun batekin, autodeterminazioarekin gertatzen den bezala, demokraziaren ideia berarekin baizik. Hemen bizi garenok gure arteko bizikidetzara arautzeko gure arauak egin ezin baditugu, ezin esan dezakegu demokrazian bizi garenik”**

tuak. Hori dira Konstituzioaren Xedapen Gehigarriak, esate baterako. Nork pentsatuko zuen 1978an gerora hain garrantzitsuak izango zirenik? Demokraziaren garapenaren arabera da hori.

Legeen aurretik beti egiten da hitzaurre bat, Kataluniako honetan badago eta Ibarretxeren estatutu proposamenean ere bai, bietan esaten da nazioak direla eta erabakitzeke eskubidea dutela. Beti esan izan da hitzaurre hau ez dela araua eta, bat batean, Konstituzio Auzitegiak esan du baietz. Eusko Legebiltzarrak edo katalanak, beraz, ezin dezakete esan nazio bat direnik eta autodeterminazio eskubide dagokienik. EAEko Legebiltzarrak esan zuen hori 1990ean eta ez zen ezer gertatu. Finean, Espainiako botere politikoa saihestu nahi du erabakitzeke eskubidea dakarren prozesu politikoa abiaraztea bera. Horra Eskozia eta Quebecekiko desberdintasun handia.

**Katalunian kontsulta edo erreferendum bat egi-teak juridikoki badu desberdintasunik?**

Horiek tresnak besterik ez dira eta bakoitzak berari interesatzen zaion eran erabiltzen ditu. Sakonean, garrantzitsuena da jakitea Kataluniako herritarren borondatea zein den eta horretarako bide juridiko bat bilatzea.

**Garai batean asko hitz egin zen eskubide historikoez eta bizi zen gatazkaren konponbiderako bidetzat ere jo ziren. Nola ikusten dituzu gaur egun?**

Tresna juridiko bat dira eta indar politikoek erabakitzen badute gure aldarrikapenak kontzeptu horretan sar daitezkeela, bada primeran. Orduan posible litzateke gure estatus juridikoa aldatzea Konstituzioa aldatu gabe.

**Azken finean, planteatzen ari zara borondate politikorik badago dena lor daitekeela.**

Bai, hori da. Arazoa da, ea nola bermatzen den adostutakoa. Ulertu beharko litzateke akordio horiek ia konstituziogileak direla, ez dagoela berauek kontrolatzeko beste botererik, ezta Konstituzio Auzitegia ere.

**Orduan, zergatik hainbeste buelta juridiko kontu hauei, dena borondate politikoa araberakoa bada?**

Zuzenbidea politikaren zati bat da. Arrazonamendu juridikoa eta errealitate juridikoa indar harremanen zati bat dira eta guk, arrazoi politikoez gain, gure eskaerak egiteko arrazoi juridikoa ere erabili behar ditugu. Zuzenbidea ideologiaren zati bat da. Horregatik garrantzia handia du autodeterminazioa edo erabakitze eskubidea zer diren jakiteak. Noski, iraultza egiten baduzu eta boterea hartu ez duzu halakorik behar, baina hori ez da posible egungo Europan. Demokrazia kontzeptu politikoa da, baina baita juridikoa ere.

**Katalanen kasuan, adibidez, Espainiako legediak ate guztiak ixten badizkie, azkenean legedi horren gainetik jauzi egin beharko dute.**

Bai, jarraitzen badute horrela izango da. Espainiaren erantzuna izan daiteke militarra edo kode penalean oinarritua, Kataluniak espainiar-tasuna uka dezake... eta ez dakigu zer gerta litekeen.

**Kataluniako autonomia estatutua bertan behera uztea praktikoki posible al da?**

Bai, baina hori okerragoa litzateke Espainiarentzat. Katalanek behin eta berriro beren borondatea erakutsiko balute, hauteskondeetan, erakundeetan, kalean... eta botereak autonomia bertan behera utziz erantzungo balu, horrek badu izen bat, 40 urtez ezagutu dugu hemen.

Espainian, dena den, eta egoerak hala eskatzen badu, PP-PSOE koalizio handiaz hitz egiten hasi dira. Badirudi, hasitako bidean jarraitzen badute, gerta daitekeenaz ohartarazten ari direla Katalunia. PSOEren federalismoa PPren eskutik ez da ulergarria. Eta premiazko federalismo hori ez da baliagarria izango, Estatuko beste herri batzuen izaera nazionala onartzen ez badu. Guk, dena den, ezagutzen dugu politika hori. Nola ulertu bestela Nafarroakoa, non PSN-PSOE diren UPNren gobernu ahalbideratzen dutenak?

**Espainian ere badira ahots batzuk esaten dutenak katalanek ezin dutela beren kabuz kontsulta eginez erabaki, baina Espainiak negoziatu behar duela haiekin.**

Bai, baina oraingoz Mariano Rajoyk dio ez duela katalanekin hitz egingo. Hitz egiten badu, batek

“

**Zuzenbidea ez da matematika, akaso zerbaiterako eskubidea baduzu, baina eskubide hori indarrean jartzeko bide bat jarraitu behar duzu. Indar harremanen arabera, aukera gutxiago edo gehiago izango duzu hori lortzeko. Kosovon ez da indarrean jarri autodeterminazio erreferenduma, baina estatu batzuek estatu gisa onartu egin dute”**

daki zer aterako den, hori da politika. Edozein kasutan, lehenbizi katalan herriak zer pentsatzen duen jakin behar da eta, horren arabera, negoziatu. Hori da demokrazia. Inork ez dio esaten Quebeci zerbait bozkatzeko eskubiderik ez duenik.

**Baina han ere Kanadako Konstituzio Auzitegiak esaten dio ezin duela independentzia bere kabuz erabaki.**

Bai hori esaten du, baina esaten du Kanadako gobernuak negoziatu egin behar duela.

**Eta negoziatioetan akordiorik ez badago?**

Ez du esaten zer gertatuko den, ez da prozedura juridikorik aurreikusten, beraz, politikari ateari guztiz libre geratzen zaizkio, besteren artean Kanada uztea, jakina.

**Quebecekoaren ondoren, erabakitzeko eskubidea ari al da biderik egiten nazioarteko esparru juridikoan?**

Ez, oraingoz erabakitzeko eskubidea ez dago nazioarteko itunetan. Dena den, estatu bihurtzeko ez da itunen beharrik, beste estatu batzuk zure izaera hori onartzea nahiko da. AEBk onartu zuen Kosovo eta kito. Europako Konstituzioaren gaia eztabaidatu zenean, proposatu zen eskumen handiak izango zituzten erregioak onartzea subjektu politiko gisa –estatua izan gabe baina egungo euroerregioak baino indartsuagoak– eta horrela Europar Batasunean estatu gisa edo erregio gisa mugitzea, baina ez zen aurrera atera.

**Kosovokoa ez da biderik egokiena izan, ezta?**

Akaso NBEen egoteko ez, baina estatu bat izateko balio izan dio, beste estatu askok onartu egin dute eta. Hori guztia ez dago arautua, estatu gisa existitzen zara estatuek izaera hori aitortzen dizutenetik. Hobe denek aitortzea, jakina, baina AEBk eta Errusiak onartzen bazaituzte, bide gehiena egina duzu.

IÑIGO AZKONA



**“Subjektu batek ezin ditu gauzak *de facto* egin, akordio politikorik badago, zuzenbideak topatu behar ditu bide juridikoak hori bideratzeko”.**

**Eta zer desberdintasun dago Eskoziarekin?**

Eskoizian alde biek onartu dute erabakitzeko eskubidea. Banaketa erabakiko balitz, gai teknikoak negoziatu beharko lituzkete eta listo.

**Eskozia edo Kataluniak independentzia lortzen badute, Europar Batasunaren barruan izango dira edo kanpoan?**

Ez dut uste kanpoan geratuko direnik. Hori ez da gertatzen Europa demokratikoan, europarrak ez dira horrelakoak, are gutxiago banaketa prozesua Erresuma Batua eta Eskoziaren adostasunez egin bada. Bilatuko da hori bideratzeko modua, Europa beti izan da sormen handikoa juridikoki. Eskozia Europar Batasunetik kanpo geratuko dela esatean beldurraren argudioak erabiltzen ari dira, eta berdin autonomia bertan behera utziko dela esaten denean eta abar. Argudio horien aurrean, ez dut ulertzen hainbatetan

esaten den hori, hau da, demokrazian ideia guztiak defenda daitezkeela. Dirudienez, ideia batzuek besteak baino gehiago. Seguru nago, Eskozia independentea Europar Batasunaren egitura juridiko-instituzionalean sartzea garrantzi gutxiko gaia da.

**Esango dizute adostasunik ezean, dauden bideak errespetatu behar direla, hau da, legezketasun printzipioaren gainetik ezin dela egin.**

Ez zait gustatzen hori nola interpretatzen den. Bada horren antzekoa den printzipioa: zuzenbidearen lehentasunaren printzipioa. Honen arabera, subjektu batek ezin ditu gauzak *de facto* egin, eta akordio politiko bat badago, zuzenbideak topatu behar ditu bide juridikoak hori bideratzeko. Imajina dezagun Quebec eta Kanada ados daudela Konstituzioa birmoldatzeko Quebecoko nahiei atea irekitzeko. Kanadako konstituzioak dio beste probintziak ere ados egon behar direla konstituzioa aldatzearekin. Beraz, horietako batek ez badu nahi, ez da konstituzioa aldatzen eta ez da Quebec nahi duena bideratzeko modurik? Bada ez, ez dute horrela interpretatzen, saiatzen dira bide juridikoak topatzen Quebecen nahiak bideratzen, honek *de facto* erabaki behar ez dezan. Hori da espiritu demokratikoa.

**Hemen antzerako prozesu bat bizi zen Ibarretxe Planaren garaian. Zergatik ez zen aurrera atera?**

Hainbat arrazoiengatik, baina batez ere abertzaleak ez zeudelako ados prozesuan. EAJk ere ez zuen argi zer egin. Uste dut EAJko Bizkaiak ez zuela inoiz sinetsi prozesu horretan, eta Ibarretxe bakarrik geratu zen. Bigarren fase batean, gainera, kontsultaren gaiarekin tematu zen atzean sostengurik izan gabe. Ez zen sukaldeko lanik egin gizarte eragileekin, sindikatuekin eta abar. Espainiatik egin zena iraingarria zen eta Euskal Herritik ez zen inongo erantzunik eman. Ikusi Katalunian alderdien ikusmoldeen gainetik egin ziren mobilizazioak eta konpara Euskal

“

**Katalanek behin eta berriro beren borondatea erakutsiko balute, hauteskundeetan, erakundeetan, kalean... eta botereak autonomia bertan behera utziz erantzungo balu, horrek badu izen bat, 40 urtez ezagutu dugu hemen”**

Herrian egin zirenekin. Herritarrek zergatiak ulertu gabe ere, indar handiak xahutu ziren garai hartan.

**Orain Eusko Legebiltzarreko autogobernu ponentzian berriz ari da jorratzen Espainiarekin izan beharreko harremana. Zer aterako da hortik?**

Ez dut uste ezer aterako denik. Hori denbora irabazteko modu bat da. Batzuk eramaten dituzten adituak erabat zentralistak dira. Zertarako eramaten dituzte? Zer zentzu du orduan Jesus Egigurenen liburuak? Ez dago alderdi abertzaleen arteko proposamen serioirik burujabetzari buruzko ideiak mahai-gainean jarri, eztabaidatu eta adostasunak lortzeko. Estatua, halaber, bere kartak erabiltzen ari da, eta presoen gaia erabiltzen du beste aldarrikapen esparru batzuk ahultzeko. Biolentzia garaiko ondorioak ondo bideratu behar ditugu, hori oso garrantzitsua da. Horrez gain, EAJ eta ezker abertzalearen arteko haustura sakona da eta ez dakit zenbat kostako den harreman hori berregitea. Kataluniara begiratzen baduzu, gizarte zibila oso indartsua da, hemen ez, hemen alderdiek gizarte zibila zurrupatu dute. Ikuspegi horretatik, alderdien politikak oso negatiboak izan dira, garai batean izan genuen gizarte zibilaren aurkakoa. Trantsizioa bizi dugu eta ez dut planteamendu berririk ikusten Euskal Herriko etorkizuneko estatusaren eztabaidan.





## Asier Blas

Zientzia Politikoetako irakaslea EHUn

# Sezesio prozesuak konparaturik: Eskozia, Katalunia eta Euskal Herria

Hemen agertzen den artikulu zabala, Asier Blasek HARGIA-ko bere *Bazterrak nabasten* blogean apirilean zehar argitaratutako beste hiruren bilduma da. Orain Lituanian dago irakasle bisitari, eskolak ematen eta hango sezesioa eta ondoren eraikitako estatua eta sistema politikoa aztertzen.

Unibertsitatean egiten ditugun ikerketen harietako bat Europako herrialdeen sezesio prozesuen konparaketa enpirikoa da. Ez diot nahi bezainbeste denbora eskaintzen, izan ere, independentzia eskuratu duten eta erdieste prozesuan dauden herrialdeetan ez bezala, Euskal Herrian ez da horrelako ikerketak egiteko dirurik inbertitu mundu akademikoan. Gurean independentismoa hein handi batean nortasun kontu bat izan da, nortasun independentista zuten herritar eta mugimendu asko zeuden, baina ez zeukaten estrategia garbi bat independentzia lortzeko. Hain zuzen ere, arazoaren sustraletako bat diagnostiko baten falta zen. Izan ere, errealitatea aldatu nahi badugu ezinbestekoa da egungo egoeraren diagnostiko on bat egitea. Honen arabera eraiki behar dira estrategiak sinesgarriak izan daitezten.

Batzuetan diagnostikoak egitea gogorra da gure ahulguneak gordinki azalduko ditugulako. Horregatik, diagnostikoak ez badaude profesionaltasunez eta espiritu kritikoarekin eginak ezer gutxirako balio dute. Helburua ez da guk nahiko genukeen argazkia ateratzea, baizik eta errealitatea islatzen duena lortzea.

Errealitate horri jarraiki, aurreikusi zitekeen Katalunian gertatu dena. Baina Euskal Herrian nortasun independentistatik egiten diren zenbait irakurketek ez dute ondo ulertu Kataluniako independentismo zaletasunak izan duen hazkundera. Nork ez ditu entzun bere inguruan katalan prozesuarekiko mespretxuzko edota konfiantza faltazko komentarioak? Batzuetan harropuzkeria askorekin eginikoak izan dira, adibidez esanez oportunistak batzuk direla Katalunian independentismoa oso ahula izatetik bat-batean nagusi izatera pasatu delako.

Katalunian nortasun katalan eskusiboa ez da nagusi eta azken urteetan indartu bada ere, oraindik gehiengo oso zabal batek nortasun katalana eta espainola uztartzen ditu. Bestalde, antolaketa politikoari buruzko lehentasunei dagokionez, federalismoak jarraitzen du atxikimendu gehien biltzen. Baina, federalista gehienek badakite ez dagoela nazio askotariko federazio bat osatzetik Espainian. Kataluniatik at, ez dago proiektu eta mugimendu federalista serio eta indartsurik Iberiar Penintsulan, beraz, Kataluniako federalista gehienek bere hautua egina dute: independentzia

eta honen bitartez balizko Europar federazio proiektu batean parte hartzea.

Katalunian nagusi dena da proiektu-estrategia independentista baten aldeko babesa ideologia eta nortasun desberdinetako katalanen artean. Eskozian, beste berezitasun batzuekin, bidegurutze antzekora ailegatu dira. Ordea, puntu horretatik urrun gaude Euskal Herrian. Jakina da herrialde bakoitzak bere berezitasun propioak dituela eta, beraz, bakoitzak bere ibilbidea egin beharko duela. Halere, azkeneko hamarkadetan egon diren independentzia prozesu desberdinetatik asko ikasi genezake.

## **BERRITASUNA ETA SUBJEKTUA**

### **A) Eskozia eta Katalunia sezesioen historian berritasun bat izan daitezke**

Deskolonizazio prozesuak alde batera utzita, historikoki estatu independente berrien sorrera gerren ondorioa izan da nagusiki, horrek ez du esan nahi denak independentzia gerrak izan direnik. Adibidez, I. Mundu Gerraren emaitzetako bat estatu berri askoren jaiotza izan zen zenbait inperioren desagertzeari esker. Inperioak indartsuak badira ez dute sufritzen sezesiorik, horregatik, II. Mundu Gerra ostean mendebaldeko edota NATOko herrialdeetan ez da sezesiorik izan. Saiakera bakarra Quebecen birritan eginkoa dugu eta bietan autodeterminazio erreferendumak huts egin zuen. Beraz, Eskoziak edota Kataluniak independentzia lortuko balute, inperioren bihotzean lortuko lukete: NATO eta Mendebaldeko herrialde demokratiko-liberal egonkortuetan. Tabu bat hautsi eta beharbada praxi berri baterako bidea markatu dezakete.

### **B) Katalunia-Eskoziak: subjektu argia dute**

Bi dimentsio aztertuko ditugu hemen: 1. lurraldetasuna eta 2. nazioa. Azkeneko hamarkadetan

Europar izandako sezesio prozesu guztiak erakundetutako lurraldeetan eman dira. Ezaugarri hau Eskoziako kasuan betetzen da, independentzia eskuratu nahi duen lurraldea erakundetua dago instituzio bakarrean. Bestalde, bere biztanleen gehiengo oso zabal batek Eskozia nazio gisa kontsideratzen du eta horren parte sentitzen da. Ondorioz, bi elementu azpimarratu behar dira Eskoziako kasuan:

1. Lurraldea eta sinboloak ondo definituak dira.
2. Lurralde horretan nazio bakarra bizi da nagusiki eta beraz, ez dago nazionalki erdibitua. Noski, beste zenbait nazioetako kideak bizi dira, etorkinak eta abar. Baina horiek ez dute kontsideratzen bere nazioa lurralde horren “jabe” denik. Badira britainiar ikuskera nazionalista dutenak, baina oso gutxi dira, oro har, biztanleen artean %85etik gora dira Eskozia nazio bat dela kontsideratzen dutenak.

Elementu bi hauek bat egiten dute Katalunian ere bai, nahiz eta Eskoziako kasuan baino pixka bat ahulagoak izan:

1. Lurraldeak eta sinboloak ondo definituak dituzte. Katalan Herriak oso kontzeptu berria da, ezin da parekatu Euskal Herria kontzeptuarekin, bere izaera nagusia linguistiko-kulturala da (hizkuntzaren zabalkundeak markatzen du muga) eta izan duen transferentzia politiko txikia konfederalismotik egin da, argi izanez unitate (herri) bakoitza politikoki subiranoa dela eta bere ibilbidea egin behar duela.
2. Katalunian gehiengo oso zabal batek argi dauka Katalunia nazio bat dela. Adibidez, 2005ean Kataluniako Parlamentuak %88,8ko babesarekin onartu zuen Katalunia nazio gisa aitortzen zuen Estatutu berria. Beraz, herrialdea ez dago nazionalki erdibitua. Eskoziako kasuan bezala, sentimendu nazional desberdinak dituzten biztanleak topatu ditzakegu



**Eskoziak edota Kataluniak independentzia lortuko balute, inperioaren bihotzean lortuko lukete: NATO eta Mendebaldeko herrialde demokratiko-liberal egonkortuetan. Tabu bat hautsi eta beharbada praxi berri baterako bidea markatu dezakete”**

(gauza arrunta egungo mundu globalizatuan), baina gehiengo oso zabal batek argi du Katalunia nazio bat dela. Herrialde batean iritzi horren kontra daudenak %20-25 baino gutxiago badira ezin da esan gizartea sakonki erdibitua dagoenik, are gehiago izaera nazional horren aurka daudenak ez badaude geografikoki kontzentratuak (gehiengoa izanez lurralde zati esanguratsu batean/batzuetan).

Euskal Herrian aldiz, aipatutako elementuak ez daude garbi:

1. Lurraldetasunaren arazoa larria da eta seguruenik blokeorako elementu garrantzitsuena. Abertzaletasunaren parte garrantzitsu batek urteetan egin duen diskurtsoa Espainiak praktikatzen duenaren antzekoa da: Euskal Herriak du erabakitze eskubidea bere osotasunean, espainiar nazionalismoak antzera dio Espainia osoak erabaki beharko duela sezesio prozesu baten aurrean. Ikuspegi demokratikotik ez dauka ez hanka ez bururik eta hori argi ikusten da definitzen den lurralde-subjektu horren baitan portaera politikoak oso desberdinak direnean, Euskal Herrian kasu.
2. Herrialdea erdibitua dago nazio izaeraren inguruan. Bere herritarren gehiengo argi bat euskal herritar kontsideratzen den arren, batzuentzat

EH nazio bat da eta beste batzuentzat Espainiako edota Frantziako eskualde bat da. Hau gutxi balitz, ikuskera desberdin hauek duten indarra lurraldetasunaren ikuspegitik oso desorekatuak dira. Homogenizatzeko bidean dagoena Euskal Autonomia Erkidegoa da, nahiz eta oraindik desberdintasun nabarmenak dauden Gipuzkoa eta Araba artean. Halere, Eusko Legebiltzarrean pentsa ezina da Katalunian lortu zuten %88,8ko gehiengo bat lortzea “Euskadiren” nazio izaera aitortzeko edo erabakitze eskubidea (“autodeterminazioa”) babesteko.

Katalunia, Eskozia eta Euskal Herriaren artean dauden desberdintasunak faktore askok azaltzen dituzte, halere, elementu klabeetako bat da nazioaren edo komunitatearen definizioa. Eskozian oso malgua da, Katalunian nahikoa eta Euskal Herrian ez hainbeste. Giltza hizkuntza da. Eskozian elementu honek ez du gizartea erdibitzen ez duelako integrazio “nazionalerako” oztoporik jartzen (hizkuntza bat ikastea). Katalunian gaztelania eta katalanaren arteko gertutasunak gauzak asko erraztu eta malgutzen ditu, aldiz, gurean erdibitzeko elementu garrantzitsua da. Ez da kasualitatea euskara-gaitasuna eta independentismo zaletasunaren artean korrelazio estatistiko esanguratsua egotea. Noski, elementu hau ez da erabiltzen dugun bakarria nazio edo komunitate atxikimendua adierazteko, baina independentismoaren diskurtsoan hizkuntza zentrala bilakatzen denean ezagutu behar dira bere muga demokratikoak. Azkeneko inkesta soziolinguistikoaren arabera euskaldunen portzentajea honakoa da: Araba %22,9; Bizkaia %30,3; Gipuzkoa %52,6; Ipar EH %21,4 (baina populazio oso zaharkitua); eta Nafarroa %11,7.

### **Sezesioak bultzatzeko ikuskera nagusiak**

Urruneko lurraldeak edo kolonia arruntak ez diren herrialdeetan prozesu sezesionista bat bultzatzeko bi gerturapen daude (bien arteko elkar

elikatzeak egon daitezke eta batzuetan era perfektuan teilkatu daitezke): nazionalista eta demokratikoa. Sinplifikatuz, nazionalistak duen diskurtsoaren muina da independenteak izan behar garela desberdinak garelako, aldiz demokratikoak lupa jartzen du gehiengoaren borondatean.

XXI. mendean paradigma nazionalistatik bakarrik nekez lortu daiteke sezesio bat. Egun gehiengo demokratiko zabalek errazten dute sezesioa bultzatzea eta arrakastatsua izatea. Horrek eskatzen duena da sezesionatu nahi den lurraldeko biztanleen artean komuna dena bilatzea eta indartzea. Azaldutakoaren arabera, honako hipotesia eraiki genezake:

Probabilitate aldetik, geroz eta teilkatze handiagoa gertatu paradigma nazionalista eta demokratikoaren artean (=integratzailea edota irekia), orduan eta errazagoa da sezesioa.

Honen adibide garbi bat da Norvegiako sezesioa. 1905eko ekainaren 7an, parlamentuak aho batez aldarrikatu zuen independentzia. Bi hilabete beranduago ospatutako sezesio erreferendumean hauteskunde erroldaren %85,4ak parte hartu zuen, hauetatik %99,95ak independentziaren aldeko babesa eman zuen (emakumeek ez zuten botorako eskubidea, halere, norvegiar emakumeen 200.000 sinadura baino gehiago jaso ziren independentziaren alde, kontuan izan aldeko boto kopurua 368.208 izan zela).



**Batzuetan diagnostikoak egitea gogorra da gure ahulguneak gordinki azalduko ditugulako. Horregatik, diagnostikoak ez badaude profesionaltasunez eta espiritu kritikoarekin eginak ezer gutxirako balio dute”**

Beraz, norvegiar kasuan teilkatze perfektua eman zen: “desberdinak garelako, baina gehien-go zabal bat garelako”. Kasu honetan garbi zegoen herri oso baten borondatea zela. Bestalde, herrialde bat bi paradigmaren arteko teilkatze perfektutik urrun badago, joera da autonomismoa bultzatzea (burujabetza esparruak irabaziz) behin behineko soluzio gisa, sezesiorako aukera politikorako egitura apropos bat lortu arte behintzat, hau da, krisi politiko, instituzional, sozioekonomiko edota gerra bat iritsi arte.

Zer ikasi genezake guzti honetaz Euskal Herrian? Gure herritarren hizkuntzak eta nortasun nazionalak oso anitzak dira, horregatik independentziaren alde gehiengo zabalak lortu nahi badira, ez du zentzu gehiegi ikuskera nazionalista klasikoetan gotortzeak. Ez dago dudarik askotariko diskurtso eta interesen arteko zubiak eraiki behar direla, motibo desberdin gehienek balio dezakete independentzia sustatzeko. Baina, ezinbestean euskal herritarrek konpartitzen ditugun bizpahiru elementu/interes komun detektatu eta indartu beharko lirake diskurtso politikoan. Eskozian errazagoa zuten, Katalunian ez hainbeste, baina etxeko lanak behar bezala egiten jakin dute.

## **LIDERGOEZ ETA ERABAKITZE ESKUBIDEAZ**

### **C) Kanpo faktoreak (jatorrizko estatua eta nazioartea)**

1. Jatorrizko estatuaren krisia: Geroz eta handiagoa eta anitzagoa, orduan eta aukera gehiago autonomia aldarrikapenetik sezesiorako saltoa emateko.
2. Nazioarteko laguntza: Nazioarteko potentzia batek geroz eta interes handiago badu lurralde zehatz baten sezesioa bultzatzeko garaian, orduan eta gehiago indartuko dira mugimendu eta proiektu independentistak.

Behin eta berriro izan dira aipatuak blogeko aurreko sarreretan eta ARGIAN argitaratutako beste zenbait artikuluetan. Halere, gogora ekar ditzagun ideia nagusiak. Jatorrizko estatuaren krisi batetik abiatu ohi dira sezesio prozesuak. Batzuetan krisi hauek kanpotik bultzatu edo lagundu dira. Nazio-arteko testuingurua oso inportantea izan da orain arte. Laburbilduz, ezegonkortasun garaiak behar dira independentzia eskuratzeko. Gerra da ezegonkortasunaren adierazlerik hoberena, baina Mendebaldeko herrialdeetan ez da horrelako edo antzeko muturreko egoerarik gertatu azken hamarkadetan, horregatik herrialde hauek ez dute inolako sezesiorik ezagutu (koloniak alde batera utzita). Bestalde, hau da nagusigo inperiala dutenaren adierazleetakoa bat. Halere, herrialde guztiek ez dute paper berdina jokatzen inperioan, batzuk periferikoak dira eta ezegonkortasun maila handiagoa izan dezakete, Espainiako kasuan argi ikusi dugu aspektu sozioekonomikoan.

Erresuma Batua eta Espainia mendebaldeko inperioan txertatuak daudenez, bigarren hipotesia ez da ematen. Aldiz, lehenengoa Kataluniako (eta Hego Euskal Herriko) kasuan ematen da gradu adierazgarri batean. Espainia askotariko krisi sistemiko bat ari da bizitzen: politikoa, instituzionala, ekonomikoa eta soziala. Mendebaldeko herrialde batean gertatu ohi ez den tamainako ezegonkortasun egoera bizi da Espainian.

#### D) Lidergoa

Normalean indar subirano zaleen metaketa ematen da. Logikak dio geroz eta gehiago zabalagoa independentziaren alde, orduan eta probabilitate txikiagoa indar metaketa hori emateko, ez baita beharrezkoa izango independentismoak duen gehiengoa irudikatzeko. Eskoziako kasuan metaketa gordina beharrezkoa da independentismoaren ahultasunagatik, horregatik independentistak SNP alderdiaren inguruan bildu dira. Kataluniako kasuan gizarte mugimendu batek gidatu du prozesua hein handi batean. Hau posible izan da independentismoak sostengu zabalagoa due-



**Abertzaletasunaren parte garrantzitsu batek urteetan egin duen diskurtsoa Espainiak praktikatzen duenaren antzekoa da: Euskal Herriak du erabakitze eskubidea bere osotasunean, espainiar nazionalismoak antzera dio Espainia osoak erabaki beharko duela sezesio prozesu baten aurrean”**

lako gizartean eta politikarien artean. Horrez gain, azpimarratzekoa da Ricard Vilaregut-ek bere doktorego tesian azaltzen duena: a) Sezesioaren aldeko gizarte mugimendua ez da ezerezetik sortu nahiz eta autonomia izan alderdiekiko. b) Herria protagonista izaki, ezinbestekoa izan da erakunde publikoetatik etorritako dirua (hazia erein zuten). c) Finantzazio hau CiUk eta bereziki ERCk eman zuten ezeren truke, hau da, kasu gehienetan dirua ez zen izan bezero-harremanak eraikitze edo militanteak liberatu bezala kolokatzeko, izan ere, dirua jasotzen zuten erakundeetatik CiUren eta ERCren aliantza politikei kritika sakonak egiten zizkieten (horren ondorio-etako bat da 2010eko hauteskundeetan ERCk izan zuten beherakada handia).

Beraz, lidergo sendo batek profesionaltasuna eta gaitasuna eskatzen du. Eskoziako kasua oso esanguratsua da:

- a) SNPk hasieratik argitasuna eta gardentasuna izan du posizionamendu eta estrategietan: argi eta garbi adierazi zuen zein zen bere proiektua eta zein pausu emango zituen (gehiengoak izanez gero).
- b) SNPk hasieratik independentzia sustatzeko eta proiektuak eraikitze erabili duen irizpi-



**Gure herritarren hizkuntzak eta nortasun nazionalak oso anitzak dira, horregatik independentziaren alde gehiago zabalak lortu nahi badira, ez du zentzu gehiegi ikuskera nazionalista klasikoetan gotortzea”**

de nagusia profesionaltasuna izan da. Profesional prestatuenak nahi zituzten diagnostikoak eta proiektuak egiteko alor desberdinetan, horretarako alderditik kanpo bilatu behar baldin bazuten lotsagabe egiten zuten, proiektua ez zelako alderdi-komunitate bat eraikitzea baizik eta estatu independente bat eskuratzeara. Ondorioz, SNPren proiektuek konfiantza eta sinesgarritasuna irabazi zuten hautesleriaren aurrean.

Euskal Herriko kasuan ez noa hitz egitera hemengo lidergoen funtzionamenduaz, seguruena irakurleak nik baino hobeto ezagutuko baitu gauzek nola funtzionatu duten alderdi abertzaleetan. Eta bai, onerako eta txarrerako gurean izaniko lidergo ereduak azaldutako ereduetatik oso urrun daude. Gogoratu EAJren filosofia: “lehenengo alderdia eta gero aberria”. Hau kultura politiko abertzalean sakonki errotutako ideia da, Ezker Abertzalean ere bai. Azken honen egokitzapena honakoa izan da: “lehenengo mugimendua (ENAM komunitatea) eta gero aberria”. Hemen ez naiz hasiko sakonki baloratzen estrategia honen egokitasuna. Gauza bat soilik erantsiko dut, estrategia egokia izan daiteke herrialde bateko populazioaren artean independentismoa oso ahula bada eta konfiantza gutxi badago gehiago independentista bat lortzeko gaitasunean. Baldintza hauek ematen ez badira, estrategia okerra da kasu gehienetan.

**E) Autodeterminaziotik erabakitze eskubidera**

Aurreko sarreretan azpimarratu da argumentu nazionalistetatik demokratikoetarako saltoa eman beharra, orain berriro egingo dut beste ikuskera batetik. Laburbilduz eta sinplifikatuz, autodeterminazioa berezko eskubide bezala definitzen da lurralde edo nazio baten lurraldearentzat. Berriz, erabakitze eskubidea autoeratu egiten den subjektu berria da. Autoeraketa hori ez da zertan egin behar nazio baten gainean, baizik eta borondate demokratiko baten gainean. Lagunduko duten faktore asko egon daitezke (bakarrik edo aldi berean ekinez): lurralde horretan jatorrizko estatuaren nazio nagusiaren desberdin diren nazioen presentzia; herrialde horren aniztasun etniko-kultural espezifikoak; lurralde horrek duen desberdintasun ideologikoa jatorrizko estatuan dauden gehiengoekiko (adibidez, populazioa askoz ere ezkertiarra bada eta inoiz ez baditu bere posizionamendu politikoak jatorrizko estatuko gobernuan nagusi bezala ikusten), eta abar. Autoeraketarako ia ezinbesteko baldintza da lurraldea erakundetua egotea eskualde, probintzia, autonomia, estatu edo beste forma batekin. Izan ere, horrela herrialde horren borondate demokratikoa agertu eta adierazi egingo da hauteskundeetan eta gobernuetan.

Batzuetan, Eskozian bezala, autodeterminazioa eta erabakitze eskubidea teilkatu daitezke perfektuki, baina leku guztietan ez da horrela izaten. Adibidez, Katalunian erabakitze eskubidearen ikuskera nagusitu da autodeterminazioaz teilkatze txiki batekin. Autodeterminazioaren diskurtsoa ez zen behar bezain malgua eta inklusiboa Katalunian. Eskozian erraza zen: aldarrikatutako lurraldearen inguruan ez dago eztabaidarik eta era argi batean dago erakundetua; gizartea ez dago hizkuntzagatik erdibitua; eta Eskoziaren nazio izaera ez dago dudatan Erresuma Batuan. Baldintza hauekin autodeterminazioaren ikuskera lantzea erraza da. Aldiz, Katalunian, besteak beste, lurraldetasunaren inguruan eztabaida

zegoen autodeterminazioaren ikuskera defendatzen dutenen artean; gizartea nortasunengatik, nazio sentimenduengatik eta hizkuntzengatik zatikatua dago eta horrez gain, faktore hauekin harreman inperfektu bat duen fenomeno bat topa genezake: Espainiatik etorritako etorkinek eta hauen seme-alabek ia osotasunean osatzen dituzten zenbait herri eta auzo daude. Baldintza zailago hauetan, diskurtso demokratikoak izan du arrakasta artekaritza lana egiteko interes desberdinen artean.

Herritarren gehiengo oso zabal batek bat egin du Kataluniako erabakitze eskubidearen aldarria-rekin bi motibo nagusirengatik. Defizit fiskalak suposatzen duen irainaren tamaina handitu du krisi ekonomikoak eta herriaren gehiengo kohe-sionatu du sentimendu nazional eta hizkuntza desberdinen gainetik, denek sufritzen dute egoera hori. Eta bigarren iraina, 2006ko Estatut-a Kataluniako aniztasun linguistiko, politiko eta ideologikoa kudeatzeko barne akordio zabal bat zen, hain zuzen ere, Kataluniako Parlamentuak %88,8ko babesarekin onartu zuen estatutua herri-proiektu konpartitu bat zen, akordioa katalanen artean autonomian sakontzeko eta Espainiaren baitan egokitzapena lortzeko. Espainiako Gorteek estatutua murriztu eta gero, Espainiako Konstituzio Auzitegiak baliogabetu zuen partzialki parlamentu demokratiko bik (Katalanak eta Espainolak) eta herritarrek erreferendumean hartutako erabakia. Arazo nazional eta ekonomikoa izatetik, arazo demokratikoa izatera pasatu zen Kataluniakoa. Katalan herritarrek beraien etorkizuna erabaki nahi dute, baina Espainiako erakundeek ukatu egiten diete eskubide demokratiko hau argudio nazionalista espainolak erabiliz. Ukazio honek independentismoaren hazkundea ekarri du, izan ere, partikularra (autonomia gehiago nahi izatea) balore unibertsala bilakatzen denean (erabakitzeko eskubide demokratikoa) hegemonia politikoa lortzen da.

Nortasun eta desio politiko desberdinak dituzten katalanek ulertu dute Espainiarekin ez

“

**Gogoratu EAJren filosofia: ‘lehenengo alderdia eta gero aberria’. Hau kultura politiko abertzalean sakonki errotutako ideia da, Ezker Abertzalean ere bai. Azken honen egokitzapena honako izan da: ‘lehenengoa mugimendua (ENAM komunitatea) eta gero aberria’”**

dagoela zereginik. Adibidez, federalista batek ikasi du ez dagoela federazio iberiar edo espainol bat sortzerik baldin eta espainiar federalistarik ez badago. Espainian ez da onartu nahi katalan nazio bat existitzen denik, Espainian ez da ulertzen Katalunian dagoen aniztasuna, Espainiak ez du nahi estatu plurinazional bat eraiki eta areago, arazorik ez dagoen lekuan arazoak sortzen ditu (murgiltze linguistikoarekin adibidez). Beraz, Kataluniak bakarrik ezin baditu jarri Espainiako etxeko laguneren artean harremantzeko arauak, gutxienez erabaki ahal izango du etxean jarraitu nahi duen. Katalan biztanle askok Espainiako etxean bizitzen jarraitu nahi zuten bestelako arau batzuekin, baina, arau horietara gerturatzeko asmorik ez duenez Espainiak, geroz eta gehiago dira pentsatzen dutenak ez dagoela Espainiako etxean jarraitzerik. Ez da inkompatibilitate esentzial (etniko, nazional) batengatik, baizik eta proiektu politiko desberdinak dituztelako. Zure lurraldean dauden lehen-tasun politikoak ez badira islatzen estatuko proiektuan, normalena da estatu berri bat eraikitzea lurralde horretako borondate demokratiko-politikora egokitzeko. Bide batez, azken honek garrantzia du Eskozian ere. Izan ere, Eskoziak beti bozkutzen du ezkerreko aukeren alde (esku-ma oso azpi-ordezkatua dago gainontzeko Erre-suma Batuarekin alderatua), besteak beste, ongi-zate estatuaren aldeko jarrera eta kultura sustraituagoa dagoelako.

